



INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA
SAILA

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA
SAILA

EBAZPENA, 2020KO MARTXOAREN 10EKOA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, TOLOSAKO "21. ARAXES PAPER-FABRIKA" HIRIGINTZA-EREMUKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN IRISMEN-DOKUMENTUA EMATEN DUENA.

AURREKARIAK:

2019ko urriaren 31n, eskaera egin zen Tolosako "21. Araxes paper-fabrika" hirigintza-eremuko hiri-antolamenduko plan bereziaren (aurrerantzean HAPB) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeari eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeari jarraikiz.

Eskaerak dokumentazio hau jasotzen du: Planaren zirriborroa, legeria sektorialak eskatutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa.

2019ko abenduaren 12n, kontsulta-izapidea egin zitzaion administrazio publikoei zein pertsona interesdunei, legeriak dioena betez -21/2013 Legeak 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak) 9. artikuluan ezarritakoa betez-; espedientean jasota dago horren edukia eta emaitza.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, bat etorrita hala abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluekin nola urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenen ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarri bat sustatzeko helburuarekin.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko efektuei buruzko analisia, hautabide egokienak hautatu ahal izateko; betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilerari.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei dagokienez, eta plan horien artean sartzen da Tolosako "21. Araxes paper-fabrika" hirigintza-eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) 8. artikuluan zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukiar buruzkoak, bai eta

2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Hemen adierazitako guztia aintzat hartuta, espedienteko txostena aztertu da, eta honako hauek ikusi dira: otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Tolosako “21. Araxes paper-fabrika” hirigintza-eremuko hiri-antolamenduko plan bereziko ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua formulatzea, ingurumen-efektuetarako.

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

HAPBren xedea da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean eremu honetarako ezarritako zehatzapenak garatzea, eta, zehatzago esanda, “21. Araxes paper-fabrika” hirigintza-eremuko arau partikularra.

HAPBk hiri-lurzoru finkatu modura sailkatzen du hirigintza-eremuko mendebaldeko aldea, eta hiri-lurzoru finkatugabe modura, berriz, ekialdekoa.

Helburu nagusien artean, honako hauek daude:

- Araxes paper-fabrikako instalazioak eraberritzea eta konpontzea, eta ekonomia-jardueretarako erabilerak finkatzea.
- Eremuko hainbat eraikuntza zaintzea eta eraberritzea
- Araxes ibaia eta haren bazterrak babestea
- Eraikinak handitzea; eraikuntza berriak indarrean dauden araudietara egokitzea
- Oinezko- eta txirrindulari-sareak GI--2135 errepideko hirigintza-tratamenduan integratzea
- Eremuko uholde-arriskua gutxitzea; Amaro paper-fabrikako presa txikia botatzea aurreikusten da

Aurreikusitako jarduketan artean:

Eremuko mendebaldean, zeina hiri-lurzoru finkatu lez sailkatuta baitago, hainbat pabilioi lotu egongo dira, eta finkatu eta eraberrituko dira; proposatuta dago eraikin horiek EAEko Kultura Ondarearen Inbentarioan sartzea. Eraisketa-lanak egon daitezke. Aurreikusten da eraikinak areagotzea eta aparkaleku gehiago egitea azaleran.

a. GI-2135 bidea desdoblaketa oinezko- eta txirrindulari-bideak integratzeko.

b. Azterlan hidraulikoa sartuko da, erabakitzeko zer neurri hartu behar diren uholde-arriskua murrizteko.

Eremuko **ekialdean,** zeina hiri-lurzoru finkatugabe lez sailkatuta baitago, aurreikusten da eraikin berriak altxatzea erabilera industrialerako, hirugarren sektorerako edo jarduera ekonomikoetarako erabiltzeko.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta aplikatzeko jasangarritasun-irizpideak.

Plana egiteko funtsezko oinarri gisa, oro har onartutako araudi, estrategia eta programetatik eratorritako helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak hartuko dira; honako hauetatik, hain zuzen ere:

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko orokorra.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa.
- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020.
- EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako Geodibertsitate Estrategia.
- 2050erako Klima Aldaketaren EAEko Estrategia.

- Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako garapen jasangarriko printzipioak (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen du Dekretuak).
- Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera ezarritako kalitate akustikoko helburuak (EAeko hots-kutsadurari buruzkoa da Dekretua).

Zehazkiago, ingurumen-helburu estrategiko, printzipio eta jasangarritasun-irizpide hauek aplikatuko dira HAPBa egiteko:

- Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020ren helburu estrategikoa eta jarduketa-ildoak. Bereziki baloratuko da Planak nola barne hartzen dituen jarduketa-ildo hauek:

- 1.1 jarduteko lerroaren 1. jarduketa. Honako beharrian hau aurreikusi da: *«Plangintza eta arategi sektorial desberdinak berrikustea eta lerrotzea, ekosistemak, haien fluxuak eta zerbitzuak (bereziki, nekazaritza-, basogintza- eta arrantza-politikan eta lurraldea antolatzeako plangintza-politikan) kontserbatzea ahalbidetuko duten ingurumen-aldagaiak gehitzeko. Garrantzi bereziko kasu bat Natura 2000 Sarea eta ekosistemen zerbitzuak integratzea da».*

- Horretaz gain, jaso beharko ditu Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean bildutako irizpideak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutakoak.

- Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz, honako hauek dira Planaren ingurumen-ebaluazioa gidatu beharko duten garapen jasangarriaren printzipioak:

- Lehenetsuna ematea lehendik ere artifizialduta dauden lurzoruen erabilera intentsiboari.
- Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- Natura-arriskuak gutxitzea.
- Sustatzea energia aurrezteko, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa.
- Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- Paisaia- eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.

- Hain zuzen ere, Planak arreta berezia eman behar die Natura 2000 Sarearen kontserbazio-xede diren elementuei lotutako helburu eta kontserbazio-neurriei, urriaren 16ko 215/2012 Dekretuan ezarrita baitaude; izan ere, dekretu horren bidez onartzen dira eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak (2013ko ekainaren 12ko EHAA, 112. zk.).

- Era berean, kontuan hartuko dira ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapen hauek: Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutakoak.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren aplikazio-eremua da Tolosako “21. Araxes paper-fabrika” Plan Orokorrak (AHPB) jasotzen dena; 35.265 m²-ko azalera du. Araxes ibaiaren behe-ibilbidean dago, udalerrriaren ipar-ekialdean.

Eremuaren mugak dira: iparraldean, Araxes ibaia; ekialdean, Araxes ibaiaren mendebaldea eta mendebaldeko landa-lurrak; mendebaldean, Gi-2135 errepideak muga markatzen du mendebaldearekin, eta Araxes ibaia ekialdearekin; azkenik, hegoaldean, muga du landa-lurrarekin mendebaldean eta Gi-2135 errepidearekin eta etxebizitza-erakuntza batekin ekialdean.

Egungo landaredia eta landaredi potentziala, neurri handi baten, oso desberdinak dira. Egun, landaredi potentzialaren unitateen txatalak mantentzen dira: haltzadiak, harizti-baso mistoa, nahiz eta azalera asko txikiagokoa izan. Urbanizatu egin da esparruaren zati handi bat (errepide-sarea, eraikin industrialak eta abar).

Bidalitako dokumentazioaren arabera, eremuaren barruan, ingurumen-balio handiko esparruak daude, hainbat katalogo eta inbentariotan jasota daudenak:

- Azterlanaren eremuan, faunarako interes gehien duten habitatak dira ibai-sistemako parte direnak: Araxes ibaiaren ibilgua eta ur-bazterreko landaredia. Interesgarritzat jotako fauna-espezieen pasagunetzat jotzen da, fauna horretan nabarmentzen direlarik martin arrantzalea eta ur-zozoa.

- Araxes ibaia interes bereziko eremutat sailkatuta dago bisoi eruroparrarentzat, Pirinioetako desmanarentzat (*Galemys pyrenaicus*) eta igarabarentzat (*Lutra lutra*). Desmanaren kasuan, Araxes ibaian gora dagoena da interes bereziko eremua, eta eremua zeharkatzen duena.
- Eremuan, EAEko Naturagune Babestuen Sareko elementu bat identifikatu da: “Araxes ibaia” kontserbazio bereziko eremua (KBE ES2120012). Eremu horrek balio eta interes handiko fauna- eta flora-enklabeak dauzka. Gune horretan, Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak daude: *Alnus glutinosa* (haltzak) eta *Fraxinus excelsior* (lizarrak) baso alubialak (Habitat-kodea: 91E0*); intereseko arrain-komunitatea dago, Habitategi buruzko Zuzentarauaren eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen II. eranskinean jasotako espezieak dituen –esaterako, loina edo iparraldeko loina txikia (*Parachondrostoma miegii*)–, bai eta Arriskupean dagoen Faunaren Euskadiko Katalogoan sartutako zenbait fauna-espezieren populazioak ere. Hain zuzen, interes bereziko eremua da zenbait espezierentzat; adibidez, bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*), igarabarentzat (*Lutra lutra*) eta desman pirinotarrarentzat (*Galemys pyrenaicus*).
- Eremu horretan, bada partzela bat, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta dagoena: 20071-00010 kodea, paper-fabrika, papera eta kartoia fabrikatzeko jarduera izan duena.
- Arriskuei dagokienez, nabarmendu behar da ezen, dagoen kartografiaren arabera, eremuko zati handi batek 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arrisku potentziala duela Araxes ibaiko ur-bazterreko lurretan, eta lehentasunezko fluxu-eremua da.
- Gainera, Plan Bereziko antolamendu-eremua Araxes paper-fabrikako instalazioetako esparruari dagokio, eta ez da erabiltzen. Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren egungo dokumentazioan daude jasota instalazio horiek, Tolosako Udalerrian interes kulturala duten beste elementu batzuekin batera; zehazki, Industria Ondareko sekzioan. Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean multzo modura sartzeko proposatuta daude.
- Eremu horretan, ingurune-zarata modura identifikatutako fokua nagusia da Gi-2135 eskualde-errepideko ibilgailu-trafikoak sortzen duena. Egun, inork ez daki zaratarekin erlazionatutako arazorik egon daitekeen ala ez eremuan.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak.

Arestian aipatu denez, jarduketa-eremuan ez dago Batasunaren intereseko habitatik. Ahaleginduko da ez jarduten habitat horien gainean, eta babestuko dira. Horrez gain, inongo jarduketak ez ditu tartean jarriko “Araxes Ibaia/Río Araxes” KBE kontserbazio-helburuak.

Gainera, proiektatu diren eraikin berriek errespetatu beharko dute zer ezartzen duen ur-arautegiak ibai-ertzen gutxieneko bazterrei buruz.

Horrenbestez, HAPBk segurtatu beharko du bateragarria dela, besteak beste, hauekin:

- 34/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko.
- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, hainbat plan hidrologiko berrikustea onartzen duena, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa, adibidez.
- 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiek eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana behin betiko aldatzea onartzen duena.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25koa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

5. Aldez aurretik egindako kontsultetako erantzunen ingurumen-azterlan laburra.

Jarraian, laburbildu da zein diren ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta-izapidean jasotako txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak:

- Planeko jarduketei eta Araxes ibaiari eragin diezaiokeenari dagokionez, txostenek azaltzen dute ezen, hirigintza-proposamena egokia izan dadin ingurumen aldetik, HAPBk proposamenak jaso behar dituela iragazkortasun-jarduketak egiteko Lizartzako presan (Araxes 2ko zelulosak Insalus).

Gainera, IEEen eta HAPBko fitxa teknikoetan, prebentzio-neurriak jaso behar dira Araxesen egoera ekologikoaren gaineko inpaktuak saihesteko edo gutxitzeko, batez ere obren lehen fasean zehar. Era berean, jaso beharko da zer baldintza bete behar den ibai inguruko naturagunea hobetzeko.

- Egiaztatu da inbentarioan sartutako partzela bat dagoela, eta lurzorua kalitate-adierazpena izapidetu beharko dela, baldin eta Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako kasuren bat gertatzen bada.

6. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu behar diren funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterlan estrategikoak (azterlana) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoaren arabera, eskatutako edukiek eduki eta egitura hau izan beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Planifikatzeko aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa.
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da azterlanak, gutxienez, hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Proposatutako planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratu duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen Plana onartzeko prozedura, eta identifikatuko da nor den behin betiko onespeneraren sustatzailea, organo sustatzailea eta organo substantiboa.

b. Azterlanean, Planaren helburu zehatzen laburpena jasoko da, hala natura-ingurunearen kontserbazioari dagokionez, nola espazio horren erabilera ezberdinen antolamenduari dagokionez. Gainera, labur islatu beharko da nola hartu diren kontuan, Plana prestatzean, ebazpen honetako 3. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren printzipioak, irizpideak eta helburuak.

b. Identifikatuko da zein diren Planaren gainetik dauden plan edo programak, haien helburuak eta zehaztapenak Planaren bidez garatzen baitira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita Planari aplikatzen zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Zehaztu egingo da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri ote diren, eta ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren adierazita, kontsultatzeko guneko esteka ere sartuta. Kasu horretan, zehaztu beharko da zein diren planaren helburuan edo eremuan eragiten duten ingurumen-ebaluazioaren adierazpen horien zehaztapenak, bai eta ingurumen-ebaluazioko irizpideak ere, ingurumen-adierazpen estrategikoetan edo haren garaian indarrean zegoen araudia aplikatuz igorritako dokumentu baliokideetan ezarritakoak.

Zehazki, kontuan hartuko da zein diren Arexes ibaiako KBE babesteko helburuak, neurriak eta arauak, urriaren 16ko 215/2012 Dekretuaren bidez (dekretu horren bidez, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzen dira) eta ur-arloko eta kultura-ondarearen arloko legerian ezarritako zehaztapenen bidez onartuak.

Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (erkidegokoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta plana diseinatzeke aplikagarriak badira.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena.

a. Adieraziko da zer planeamendu mota garatzen den Planean, eta zehaztuko da zein neurri edo jarduketa dagokion egiturazko antolamenduari edo antolamendu xehatuari.

Deskribatuko da zer aurreikusten den Planean espazioaren antolamenduari, erabileren arauketari eta baliabideen erabilerari, baita zer jarduketa eta proiektu aurreikusten den hura garatzeko ere.

b. Zehaztu beharko da zer proiektu aurreikusten den Plana garatzeko. Ildo horretatik, argitu beharko da ea Amaro paper-fabrikako presa txikia botatzeko jarduketa sartzen den egun izapidetzen ari den plan bereziak aurreikusten dituen jarduketan artean.

Kasu guztietan eman beharko da informazioa haien tipologia, kokapen eta dimentsioei buruz (luzera eta eragindako azalera), baita lotura duten jarduketei buruzkoa ere. Ahal den neurrian, adieraziko da zein den proiektua sustatzen duen organismo edo entitatea, baita ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa —sinplifikatua edo arrunta— egin behar zaien ala ez ere.

Epigrafe honetan jasotako informazioa eskala egokian jasoko da kartografian, eta erakutsiko du zein den lurraldearen erabilera, bai eta planeko zer ekintzak, aurreikuspenek eta jarduketak eragin ditzaketen ondorio esanguratsuak ingurumenean. Hala badagokio, proiektuen kokapen eta tamainari buruzko informazio kartografikoa jaso beharko da.

c. Planean aurreikusitako jarduketa bakoitzarentzat, ingurumenari eragin diezaioketen ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handikoenetik txikikoenera hierarkizatuko dira, haien kokapen zehatza, izaera eta magnitudea kontuan hartuta. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Adieraziko da zer garapen aurreikusi zaion planari, `plana behin betiko onartzen denerako; aipatuko da zer fase izango dituen gero planak, eta zer tresnetan gauzatuko diren planaren zehaztapenak. Aurretik adierazi denez, garapen-tresna ezberdinek —planak zein proiektuak— ingurumen-ebaluazioa bete beharko ote duten aurreikusiko da.

e. Nolanahi ere, erantsiko da zer denbora-aurreikuspen egiten den plana garatzeko, eta, bidezkoa bada, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako zehaztuko da.

6.1.3. Planifikatzeko aukerak

A. Haren efektuen analisi konparatiboa egingo da. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.

b.- Deskribatuko da zein den alternatiba horien irismena, eta zehaztuko da zer desberdintasun dauden alternatiba bakoitzetik ondorioztatzen den Planeko proiektu eta ekintzen artean, konparatuz azterlanean lanaren irismenari, edukiari eta garapenari buruzko apartatuan deskribatzen diren ekintzekin.

b. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

c. Kartografikoki jasoko dira aztertutako alternatiba guztiak.

6.2. Ingurumenaren egungo egoeraren ezaugarriak zehaztea.

Deskribatuko da ingurumen-kalitateko zer elementu dauden Planaren eraginpeko eremuan. Elementu abiotikoak eta biotikoak deskribatuko dira, bai elementu mota bakoitzaren sektore-ikuspegitik, bai haien interakzioen ikuspegitik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eraginpeko esparrutzat, antolamendu-esparru osoaz gain, haren ingururik hurbilena hartu behar da, Planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara mugatuta.

Ingurunearen kalitateari buruzko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta izenburua, urtea, egilea eta, hala badagokio, adieraziko da zer estekatatik sar daitekeen lana bere osotasunean kontsulta daitekeen gunera.

Azterlanak eskala egokiko planoak izango ditu, ingurunearen aldagaiak islatuta.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Interes naturalistiko eta ekologikoko elementuak daudela adieraziko da: landaredia, baso autoktonoak, habitat interesgarriak, basoko flora eta fauna, ondare geologikoa, korridore ekologikoak, hezeguneak, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.

Ahal denean, datu kuantitatiboak emango dira, hala nola azalera, populazioaren tamaina, bikote edo banakoen kopurua eta garrantzi erlatiboa EAeko edo haren banaketa-eremu naturaleko populazio osoaren azalera eta tamaina osoari dagokionez. Halaber, honako hauei buruzko datuak emango dira: kontserbazio-egoera, interes-maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak eta Plana gauzatzekoan areagotu daitezkeenak.

Apartatu hau egiteko, natura-intereseko elementuen inbentarioak, katalogoak edo erregistroak berrikusiko dira (plan hidrologikoetako eremu babestuen erregistroak, hezeguneen inbentarioak, baso-inbentarioak, mendien katalogoak edo espezieen zerrenda gorriak, besteak beste).

Planak Araxes ibaiaren KBERi eragin diezaiokenez, honako informazioa txertatu beharko da azterlanean:

- Kontserbazio bereziko eremua erakutsiko duen planoak.

- Gunea antolatze eta kudeatzeko tresnen aipamena, tresna horiek onartu dituen arau-xedapena eta argitaratu den aldizkari ofizialaren aipamena, bai eta kontsultatzeko lotura ere. Identifikatuko da zein den gunea kudeatzeko zeregin duen administrazio-organoa eta, hala badagokio, administrazio-unitatea.

- Gunea izendatu eta babestea eragin duten balio nagusien deskribapen laburra, hala nola habitatak eta espezie edo elementu bereziak (geologikoak, paisaiakoak etab.), EAeko zein Araxes ibaiako kontserbazio-eremu bereziko kontserbazio-egoera, eta tokian identifikatutako presio eta mehatxu nagusiak. Ingurumen-ebaluaziorako, garrantzitsua da, ahal den neurrian behintzat, ahalik eta informazio ekologikorik eguneratuena izatea. Informazio hori Natura 2000 tokien planifikazio, kudeaketa eta jarraipenaz arduratzen diren organismoetatik jaso daiteke, baita Tolosako Udalarengandik berarengandik ere edo bestelako iturrietatik.

c. Paisaia. Kontuan hartuko dira paisaia-intereseko zonak, hala nola mugarri bisualak eta pertzepzioaren ikuspuntutik interesgarriak izan daitezkeen beste elementu batzuk eta paisaia-katalogoaren barrukoak.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Uholdeak izateko arriskuari, lurzoruko kutsaduratik eratorritako arriskuari (IDEn, azterlan hidraulikoa aipatzen da), lurpeko uren kalteberatasunari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatuz beharreko beste edozein ingurumen-arriskuri buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira. Halaber, ikusitako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, hauek direla eta: airearen, uraren edo lurzorua kalitate, espezie exotiko inbaditzaileak, higadura-arazoak edo espazioaren erabileraren ondoriozko bestelako arazoak (aisialdia, basogintza, abeltzaintza, ehiza, etab.). Azterlanak, bestalde, informazio nahikoa izan beharko du egiaztatze betetzen direla kanpoko kalitate akustikoko helburuak: soinu-iturrien analisisa (egun eta 20 urteko etorkizunean), alternatiba-azterlana, eremuan aplikatu daitezkeen KAHak lortzeko neurrien definizioa.

Ildo horretatik, aipatu behar da ezen inbentarioan sartutako partzela bat dagoela eta lurzorua kalitatearen deklarazioa izapidetu beharko dela, baldin eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada.

e. Kultura-ondarea. Adieraziko da zein den hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, zaurgarritasuna, tresna eta babes maila. Era berean, aipatuko da zer arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babesa kultura-ondasunari. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, aztertuko da zein den ebaluazio-eremuko ingurumenaren egungo egoera, eta labur-labur jasoko dira ingurumen-ebaluaziorako prozesuan garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiak. Zehatz-mehatz adierazi beharko da zer ingurumen-alderdik jasan dezaketen etorkizunean Planeko ekintzen eragina.

Zehazki, informaziorik garrantzitsuen laburbilduko da Araxes ibaiako KBERen eremu babestuari buruz eta lehentasunezko habitat eta espeziei buruz.

Horregatik, jakin beharko da ea oinarritzko prozesu ekologikorik dagoen, eten edo aldatu daitezkeen Plana gauzatzeko. Arreta jarri beharko da ingurumenari dagokionez interesgarriak diren eremu, elementu edo egoeretan, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, eta kontuan hartuko da non kokatuko diren eta zer ezaugarri izango dituzten planaren ondorioz sortuko diren proiektu edo ekintzek. Saihestuko da xehetasunez deskribatzea zein diren Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak ez diren alderdiak, eta ahalegin handiagoa eskainiko zaie ingurumen-eremuaren elementu, prozesu, arazo eta arrisku garrantzitsuei.

Kontuan hartuko da ingurumen fisikoaren zer faktorek eragin dezakeen edo garrantzitsu izan daitekeen Planean aurreikusitako proiektu eta ekintzen efektuak ebaluatzeko, hala nola ur-masen eta ur-guneen egoera, lurzoruen gaitasun agrologikoa, substratuaren iragazkortasuna eta egonkortasuna, eta ebaluazioan kontuan hartu beharreko ingurune abiotikoaren beste edozein alderdi.

Arreta jarriko zaie espezieen funtzio ekologikoei eta ziklo biologikoari eusteko garrantzitsuak diren eremu eta habitatei (elikatzeko, ugaltzeko, atsedean hartzeko, sakabanatzeko edo populazioen arteko truke genetikorako garrantzitsuak diren eremuak). Kontuan hartuko da lehentasunezko habitat eta espezieak daudela, arrotzak edo gutxi ordezkatuak, kalteberak edo desagertzeko arriskuan daudenak eta, beraz, babestu beharrekoak.

Era berean, kontuan hartuko dira natura-ingurunea eta paisaia babesteko beste alderdi batzuk.

Halaber, arrisku jakin bat prebenitzeko edo murrizteko aurreikusitako plan edo proiektuei buruz eskura dagoen informazioa emango da, bai eta ingurumen-arriskuei eta hautemandako egoera problematikoei dagokienez ezagutzen den edozein administrazio-jarduerari buruzkoa ere, arreta berezia jarrita Plana gauzatzean gehitu, areagotu edo beste bitarteko batzuetara transferitu daitezkeen gaitetan.

Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria eta abar.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-efektuak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da zer ondorio edo efektu izan ditzaketen lanean bilduriko ekintzek azterlanaren 2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta deskribatu beharko dira ondorio horien ezaugarriak. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren arteko interakzioak aztertuko dira, baita sor daitezkeen edo larriagotu eta areagotu daitezkeen ingurumen-arazoak eta -arriskuak ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektua den, honako hauek berezita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Deskribatu beharko da zein diren azterlanaren dagokion apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak, eta espresuki aipatuko da zein den ekintzei esleitutako kodea. Hala dagokionean, argi eta garbi adieraziko da zer efektu eragin dezakeen ekintza bat baino gehiago bateratzeak. Era berean, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Identifikatu beharko da Planean aurreikusitako jarduketek zer ondorio izan dezaketen Araxes ibaiko kontserbazio bereziko eremuko elementuetan, baita Azterlanaren 2.1 apartatuan jasotako beste elementu babestu batzuetan ere, hala eraikuntzaren nola ustiapenaren faseetan. Kasu horretan, apartatu hori xehetasun-maila jakin batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen efektuak behar bezala identifikatzeko eta afekzioaren inguruan egon daitezkeen ziurgabetasunak argitzeko. Horretarako, naturaren kontserbazioaren arloan eskumena duten erakundeek argitaratutako gida metodologikoak eta, oro har, onartzen diren beste dokumentu tekniko batzuk aplikatuko dira. Sustatzaileak Natura 2000 Sareko lekua edo babesgunea kudeatzen duen organoaren irizpen edo txostena badauka, eta horretan ebazten bada Planak ez duela espazioan eragin nabarmenik izango, Azterlanean sartu beharko du.

Era berean, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Planari lotutako karbono-aztarna ebaluatuko da.

Horrela deskribatutako HAPBko ondorio bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

b. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eragina jasan lezakeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri bereziak.
 - Aurkako ingurumen-baldintzak, airearen, uraren edo lurzoruen kalitate-estandarrak edo muga-balioak gainditzeko moduan.

- Planak zein neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilita, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio edo efektu horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, orobat, zehaztu egingo da plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea detektatutako ondorioa ekarriko duen ekintza horrek eskatzen duen beste plan eta programa batzuetan sartzea laneko zehaztapenak, eta zehaztuko da kasu bakoitzean zein den eragindako planifikazio-tresna.

e.- Aztertuko da ea betetzen diren aurreikusitako erabilerarako ezarritako kalitate akustikoaren helburuak; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan araututako metodologia erabiliko da.

f. Hala deskribatutako ingurumen-efektuak hierarkizatu egingo dira, horien garrantzi erlatiboa nabarmentzeaz gain.

6.4. Babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak

a. Apartatu honetan deskribatuko dira neurri batzuk, dagokion azterlanaren 3. apartatuan aurreikusitako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu eta, hala badagokio, konpentsatzeko.

Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Helburu izango dute natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoan aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta 3. apartatuan identifikatutako ondorio edo efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Araxes ibaiko kontserbazio bereziko eremu bera eta kontserbatu beharreko elementuak babesteko neurriak.

- Espazioaren erabilera antolatzeako neurriak. Hala, erabilera publikoa gaitasun handiena duten zonetara bideratuko da, zonarik kalteberenetako intentsitatea murrizteko neurriak ezarrita.

Deskribatzen den neurri bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori azterlaneko hurrengo apartatuetan erabiliko da, erreferentzia erabili behar bada.

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo Plana gauzatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan aplikatzea komenigarri edo egingarria denean.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzentzeko neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, non deskribatuko baita zer neurri aurreikusten den Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzera bideratuko dira:

- Gainbegiratzea ea behar bezala ezartzen diren Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak.

- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoan bilakaera ere. Ildo horretatik, egokiak izan daitezke kontserbazio bereziko eremu izendatzerakoan diseinatutako zenbait jarraipen-neurri.

- Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko efektu kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihestu edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.

- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak azterlanaren 4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin identifikatuko dira, eta horiekin bat etorri beharko dute.

c.-Jarraipen-neurri bakoitzarentzako, honako hauek zehaztuko dira:

- Jarraipenaren xede diren ingurumen-alderdiak edo -aldagaiak, eta haiek neurtzeko adierazleak (kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak).

- Zein diren gehieneko mugak edo erreferentzia-mailak parametro kuantifikagarrientzat.

Adieraziko da planaren zein gauzatze-fasetan egingo den kontrol bakoitza, eta nor diren eragileak edo arduradunak.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Apartatu honetan, deskribatuko da zelan txertatu ingurumen-alderdiak planean. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, azterlanaren 1.1 apartatuan deskribatutakoak.

b. Aztertuko da zer probabilitate-gradutan eragin diezaiekeen planak Araxes ibaiaren kontserbazio bereziko eremuari eta eremuan kontserbatu beharreko elementuei.

c. Aztertu da, gainera, zenbaterainoko arriskua dagoen Planak etorkizunean ingurumen-ondorio adierazgarriak izateko, eta beharrezko argudioak emango dira, egiaztatzeko ezen, proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak planean txertatuz gero, probabilitate oso txikia egongo dela ondorio esanguratsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori gauzatzeko, azterlanaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

Emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du azterlanak, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

Apartatu honi, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio; bestela, erreferentziak jaso beharko dira, informazio hori erraz eskuratu ahal izateko.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, organo erabakitzaileak jendaurreko informaziopean jarriko du plan honen hasierako bertsioa, azterlanarekin batera, gutxienez 45 egunez. Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak, jendaurreko informazioaren izapidearen pean jartzearekin batera, kontsulta egin beharko die administrazio eta interesdun ukituei. Organo sustatzaileak erakunde eta interesdun hauei egin beharko die kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- URA Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE - Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.
- Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzua eta Fauna eta Flora Zerbitzua, biak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendietako eta Natura Inguruneke Zuzendaritzarenak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Eguzkizaleak aisialdirako elkarteak.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikuluan arabera, kualifikazio profesionala eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonen egin beharko dute azterlana, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterlanak eta haren eranskin guztiek (eragin akustikoari buruzko azterlanak, adibidez) pertsona horiek identifikatu beharko dituzte, eta adierazi beharko dute zein diren haien tituluak eta, hala badagokio, lanbide arautua. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Haiek dokumentuaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira,

administrazioak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita. Apartatu monografikoak baditu, apartatu horien arduradunak identifikatu beharko dira.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, haien artean nahiz aurretik aurkeztutakoekin, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz, eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da adierazteko zer datuk ahalbideratzen duten kasu bakoitzean dokumentu teknikoan apartatuak haien artean erlazionatzea (esaterako, apartatu batean proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, izen berarekin aipatu beharko dira ekintzak bi kasuetan).
3. Beharrezkoa balitz, adierazi behar da zein iturritatik lortu diren datuak.
4. Igorritako fitxategi bakoitza ez da 30MB baino gehiagokoa izango. Igorri beharreko dokumentazioak 30 MB baino gehiago pisatzen badu, hainbat artxibotan zatituko da.
5. Planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu behar da hala eskatzen duten apartatuetan. Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, georreferentziatuta; hau da, pdf-ek eremuko koordinatuak eduki beharko dituzte UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema ofizialean.
6. Análisi teknikoa behar bezala egin ahal izateko, pantailaratzeko PDF formatuko fitxategiez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da, shape formatuan (UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilia), eta ezingo da 10 Mb baino gehiagokoa izan. Shape fitxategi hori ZIP fitxategi batean entregatuko da konprimatuta, dituzten 4 fitxategiek osatuta: .shp, .shx, dbf, .prj.
«Eremua.zip» shape konprimatuaren adibidea, lau fitxategiak bilduko dituenen»: eremua_adibidea.shp; eremua_adibidea.shx; eremua_adibidea.dbf; eremua_adibidea.prj
7. Plano guztiak zenbakiarekin eta izenburuarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
8. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, planoan jatorrian adierazitako eskala zuzendu beharko da, horretan oinarrituz egindako neurketek zalantzarik sor ez dezaten.
9. Testuetan zehar aipatutako eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak aurkeztu beharko dira dokumentazioarekin batera. Erreferentzia horiek argi eta garbi jarri behar dira, kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan.
10. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketa ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutak edo ordezkaturak jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, paragrafoak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioen bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Aipatutako jarraibideak betetzen ez badira eskaera bat zuzentzeko, litekeena da izapide gehigarri bat behar izatea, kontraesanezko edo inkongruente izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.
11. Dokumentuak karpetan elkartuta entregatu beharko dira, eta legeriak dokumentu horren edukia deskribatzen duen moduan izendatuta.
12. Informazio jakin bat separata moduan aurkeztekotan, izenburua eta erreferentzia eman beharko zaizkio, dagokion legerian zehazten den agiriaren edukian aipatutako apartaturen bati atxiki ahal izateko.
13. Gainera, bestelako karpeta gehigarri batzuk ere aurkeztu ahal izango dira izaera orokorreko planoz eta informazioz hornituta, plano eta informazio horiek apartatu batzuen helburuetarako baliagarriak badira. Ingurumen-organoren zerbitzu teknikoek kontuan har ditzaten karpeta gehigarrietan bildutako elementuak, elementu horiek behar bezala erreferentziatuta egon beharko dute aurkeztu diren dokumentu guztietan.
14. IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaera; horretarako, aplikatu behar diren fitxak eta formularioak erabilia eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeenak; zehazki, helbide honetan: <http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenariburuzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>
15. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkeztu bada, 30 MB izango ditu, gehienez, eta bilaketak egitea ahalbideratu beharko du. Dokumentuak handiagoak badira, zatitu beharko dira, sisteman sartzeko.
16. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide bat txertatuko da, eta zehaztuko da zer orrialdetan dagoen adierazitako apartatu guztiak. .pdf dokumentu baterako aurkibide bat aurkeztu bada, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazi behar denekin.

17. Datuak igortzean, organo sustatzaileak beti bermatu beharko du datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen dela.

Bigarrena.- Ebazpen hau Tolosako Udalarari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Agintzea ebazpen hau argitara dadila Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria



IVAN PEDREIRA LANCHAS

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 10a.